

Datuen Prozesurako Zentro berriek segurtasunean eta fidagarritasunean estandar maila gorenak betetzea aurre-ikusten da

Kutxabankek 45 milioi euro inbertituko ditu bere ‘garun digital’ berrian

- **Berriztatzeak teknologien esparruan finantza Taldeak duen erronka estrategikoarekin bat egiten du, banka-eragiketa guztien %70 jadanik digitalak baitira**
- **Azpiegiturak energia garbia baino ez du kontsumituko, planta fotovoltaikoek sortua, eta beraz karbono arrastorik ez du utziko**

2019ko azaroaren 14an. Kutxabankek bere Datuen Prozesurako Zentroaren (DPZ) sarea berrituko du datozen hiru urteetan, guztira **45 milioi euroko** inbertsioarekin. Sare berri hau **Zamudion** eraikiko diren bi **azpiegitura berrik** osatuko dute. Hauei beste zentro bat gehituko zaie **Donostian**, aparteko gertakizunei aurre egin ahal izateko. Horrez gain, **Gasteizen** jarraituko du eraikinetako jarraitasunerako zentroak.

DPZ-ak finantza erakunde baten **benetako garuna dira**, bere bezeroekin zerikusia duen informazio guztia eta erakundeak aurrera jarraitzeko beharrezkoa duen teknologia biltzen baitute, tartean interneteko eta banka mugikorreko kanaletakoak.

Bi azpiegiturek **6.000 metro** koadroko azalera beteko dute, orain arte erabili izan diren ekipaia teknologikoak ordezkatzeko dituzte eta dauden **teknologia berrienak** bateratuko dituzte. Honela, segurtasunean eta fidagarritasunean lor daitekeen maila gorena izatea espero da.

Banku digital baten beharretarako

Kutxabank ahalegin berezia egiten ari da egungo banka-bezero modernoak dituen behar berriei erantzuteko, hau da, teknologia digitalak erabiltzera ohitua dagoen bezeroaren nahiak asebetetzeko. Kontutan hartzekoa da izan ere, finantza Taldearen erabiltzaileen %41 bezero digitalak direla, eta **eragiketa digital eta telematikoen bolumena** bankuko eragiketa guztien **%70** dela jadanik.

Honenbestez, DPZ berriak sortzearekin egungo **banka digital ereduari** erantzuten zaio, eta bezeroen datuak bereak dituen azpiegituretan zaintzeari ematen zaio lehentasuna, ‘lainoak’ edo hirugarrenen DPZ-ak erabili ordez.

Telekomunikazioetako azpiegitura berriok sortzeko **250 km fibra optiko** erabiliko dira, eta **Euskaltelen** lankidetzaz izango du Kutxabankek, tokian tokiko enpresa hornitzaile kopuru garrantzitsu batez gain.

Karbono arrastorik gabea

Zentro teknologiko berriok abian jartzean, Kutxabankek lehentasuna eman dio **eraginkortasun energetikoko** plan estrategikoari.

DPZ berrion berrikuntza nagusietakoa da erabiltzen duten argindarrak ez duela **inolako eragin kaltegarririk** uzten ingurugiroan, **karbono-arrastoari** dagokionez. %100 **energia garbia eta berriztagarria** erabiliko dute, eguzki-jarduerak sortua. Gogoratzekoa da, halaber, Kutxabank izan zela aktibo berriztagarrietan oinarritutako energia erosteko kontratua sinatu zuen Estatuko lehen finantza Taldea.

Horrez gain, **'freecooling' edo energia kontsumorik gabeko hozketa** sistema izango dute. Honek eguneko tenperatura hotzenak baliatzen ditu, neguan zein udan, energia hornidurak kutsadurarik gabekoak izan daitezen eta atmosferara isurtzen diren gai kutsagarriak murriztu daitezen.